



Iruñeko udal-mugapeak 23,55 kilometro koadroko azalera dauka eta bertan ia 200.00 lagun bizi dira. Hiriaren alde handi bat meseta batean kokaturik dago eta itsasoarekiko garaiera, bana beste, 449 metro da. Hiru ibaiak zeharkatzen dute Iruña. Arga ibaiak iparraldean egituratzen du eta Txantrea, Arrotxapea eta Sanduzelai auzoetan barrena doa; Sadar eta Elortz ibaiak hiriaren hegoaldean gurutzatzen dute. Iruña eta eskualdean mendiz inguratuta daude, eta gailurrak ez dira mila metrotik gorakoak: Ezkabamendi (892 metro), Taxoare (668 metro) edo Badostain (590 metro).

OCUKontsumitzaile eta Erabiltzaileen Erakundeak 2012an argitaraturiko azterlan baten arabera, Iruña Espainiako bizi-kalitateari hoberena duen hiria da. Nafar hiriburuak 6,2ko nota lortu zuen 10etik eta baloraziorik onena erdietsi zuen hainbat gaitan, hala nola osasunean, hezkuntzan, segurtasunean, garbitasunean, garraioan edo lan-merkatuaren sartzearan.

Azterlana egiteko, hainbat herrialdeko (Italia, Belgika, Portugal eta Brasil) 19.241 lagun inkestatu zituzten, eta haietatik 5.416 espainiarrak ziren. Inkestak 126 hiri ebaluatu zituen, haietarik 30 Espainiakoak, autonomia guztietakoak eta haien biztanle kopuruaren arabera aukeratutakoak. Iruña ondotik, Gasteiz (5,8), Gijón (5,7), Bilbo (5,6) eta Logroño (5,5) eta Albacetek eta Oviedok (5,5) eskuratu zuten notarik onena. Inkestak hiri bateko bizi-kalitatea barematzeko berariazkoagoak diren alderdi batzuei heldu zien. Iruña, adibidez, Espainiako hiririk onena da lana bilatzen saiatzeko, Gasteiz, Logroño eta Bilbo aurretik. Nafar hiriburuak, era berean, hoberena da hezkuntzan eta osasunean. Azken arlo horretan, zehazki, zazpigarrena da azterlanak mundu zabalean aztertutako 120tik gora hiriren artean. Inkestaren arabera, Iruña, halaber, Espainiako hiririk seguruena da, eta ondotik Oviedo, Santander, Gijón eta Logroño datoza; bai eta garraiorik onena duena ere. Gainera, buruan da beste hainbat balorazio-esparrutan; hiririk garbiena





da, adibidez, eta hiri-paisaiarik hoberena duena, bietan ere Gasteizen gainetik. Iruña hirugarrena da administrazioaren gardentasunean, Bilbo eta Gijónen atzetik.

Hiri berdea Parke eta lorategiek hiriko azaleraren ia % 20 hartzen dute, Iruñean. 250 arbola-espezietik gora daude, Arga ibaiaren parkean, Zitudelán, Gaztelugibelen, Mendillorri, Taconerako parkean, Yamaguchin, unibertsitateetan edo Buztintxurin.

Iruñeak, bestalde, konpromisoa hartua du garapen iraunkorraren alde. Horren erakusle dira hainbat ekimen: Arga ibaiaren pasealekuaren moldaketa, panel fotovoltaikoen instalazioa ikastetxeetan, bizikletak alokatzeko udal-zerbitzua, kontsumo txikiko hiri-argiteria, bidegorria, gorpilen pneumatiko birziklatuz egindako zoladurak, edo Europako Engage (Konpromisoa) proiektuan parte hartzea Europako beste hamaika hirirekin batera CO₂-aren isurpenak murrizteko.

Hiri unibertsitarioa. Iruñeak hiru unibertsitate ditu eta, horregatik, erreferentziazko hiri bat da goi-mailako ikasketetan. Nafarroako Unibertsitatea 50eko hamarkadan sortu zen; Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala, 1973an; eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa 1987an lotu zitzaion bideari. Hiruren artean 20.000 ikasle unibertsitario inguru bildu zituzten 2012an.

Hiru unibertsitateetako jarduera akademikoak eraginda, hirian biltzarrak, bilerak, mintzaldiak, topaketa zientifikoak eta jardunaldiak egiten dira, zeinetan arlo honetako eta hartako Espainiako eta nazioarteko adituek beren ikerlanak, esperientziak eta iritziak agertzen baitituzte.

Abangoardiako hiria, osasungintzaren arloan Osasun-langileen prestakuntzak eta ospitaleetako ekipamenduak erreferentzia bilakatu dute Iruña, Espainian. Nafarroako Ospitalegunek osasun-zerbitzu publikoak biltzen ditu eta bertan abangoardiako ebakuntza kirurgikoak egiten dituzte.

Bertan da, baita ere, Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroa, Foru Erkidegoko ospitaleak hornitzen dituen.

Erietxe Unibertsitarioak ospea du nazioartean, eta aitzindaria da medikuntza-aurrerabideetan. Bestalde, Ikerketa Mediko Aplikatuaren Zentroak (CIMA) ikerketa erabilpen klinikora hurbiltzen du, eta industria farmazeutikoarekin aritzen da elkarlanean, sendagai berriak garatzeko.

Hiri solidarioa. Behartsuenendako laguntza hiriko auzo guztietan barna kokaturik dauden auzo-unitateen sarearen bitartez bideratzen da. Sare horretan, laguntza ematen zaie haien egoera pertsonala, familiarra edota soziala medio arreta berezia behar duten pertsonen. Horrez gain, Udalak baliabideak ditu herritarretan behar bereziak dituzten multzo jakin batzuei laguntza emateko, hala nola minusbaliatuei, etxerik gabekoei, etorkinei eta bakarrik bizi diren adinekoei. Hona baliabide batzuk: Etxerik Gabeko Pertsonak Artatzeko Zentroa Trinitarios aldean, apartamentu babestuak, etxeko laguntza-zerbitzua eta beste.

Udalak, 2012n, 1,5 milioi euro bideratu zituen garapenaren aldeko lankidetzara, diru-laguntzen lau deialdiren bidez. Deialdiok hegoaldeko herrialdeetan giza garapenerako proiektuetan diharduten Garapenaren Aldeko Gobernu Kanpoko Erakundeei zuzenduta daude, eta barne hartzen dituzte, halaber, Iruñean bertan jendea hezteko eta sentsibilizatzeko egiten diren proiektuak.

Hiri abegikorra. Iruña ia 200.000 biztanleren parean dago. Iruñeko Udala 2000. urtean hasi zen immigrazioari buruzko txostenak egiten seihilekoan behin eta, urte hartatik hona, lehen aldiz behera egin du Iruñean erroldaturik dauden atzeritarren kopuruak. Immigrazioari buruzko XXI. Txostenak 2012ko abenduan jaso zuenaren arabera, Iruñean erroldaturiko 33.865 lagun atzerrian jaio dira, biztanleriaren % 17,1. Urtebete lehenago, berriz,

34.677 lagun ziren, hau da, 812 lagun gehiago, eta biztanle guztien % 17,4. Azken urtebetean etorkin kopurua ere jaitsi da, 1.244 lagunetan. Guztira, 23.964 dira; biztanleriaren % 12,1 (atzerrian jaiotako guztiak ez dira etorkintzat jotzen, nazionalitate bikoitza izan baitezakete, edo guraso iruindarrengandik atzerrian jaiotakoak izan daitezke...)

Iruñean, 130 nazionalitateko jendea bizi da. Bulgariarrek eta errumaniarrek osatzen dituzte multzorik handienak, 3.155 eta 2.476 erroldatuekin, hurrenez hurren. Hirugarren tokian boliviarrak daude eta, gero, ekuatortarrak, portugaldarrak, marokoarrak, kolonbiarrak eta perutarrek. Zortzi nazionalitate horietako bakoitzak mila lagun baino gehiago ditu Iruñean eta hiriko biztanleria atzerritarraren % 57,3 jotzen dute.

Kultur hiria. Iruñeak 130 instalaziotik gora ditu, publikoak nahiz pribatuak, kulturaren, aisiaren eta denbora librearen esparruetan eskaintza askotarikoa garatzeko. Hiria kultur izaerak hiru mugarri ditu: Sanfermin jaiak, Donejakue Bidea eta Iruñearen historiari lotutako ondarea (harresiak, Zizurdi, Alde Zaharra), Erdi Aroko hiria eta Nafarroako Erresumako hiriburua izan baitzen.

Sanferminek munduko erdigunean jartzen dute Iruña uztailaren 6tik 14ra, entzierroen sonak eraginda, batez ere, baina baita jaietako alaitasunak eta algarak direla medio ere. Milaka bisitari etortzen baitira hirira, iruindarrekin batera zuri-gorri margotutako bederatzi egunez gozatzeko. Iruña, halaber, *Bidean, lehena* da Donejakue Bidean. Ongi merezitako titulua da, mendez mende Santiagorantz zihozten erromesak hartu dituelako. Erromesek aterpetxeetan hartzen dute atseden Jesus eta Maria aterpetxean, esaterako; ibilbidea Done Jakueren izarrarekin markatua dago hiri osoan, Magdalenan hasi eta Nafarroako Unibertsitatean barna kanporantz ateratzeraino; eta erromesek Iruñeko elizak, parkeak, harresiak eta txokoak zeharkatzen

dituzte Santiagora bidean. Donejakue bidearen historia, azken finean, hiriak mendeen joan-etorrian izandako bilakaerarekin dago lotua, erresuma izan baitzen Iruña, bai eta erresumako hiriburua eta probintzia-hiriburua ere, eta egun, autonomia-erkidegoko hiriburua. Kristo aurreko arora garamatzan historia da, mendeek ekarritako garai berrietara egokitzen jakin izan duena, burguak batuz, harresien eta Zizurdiaren bidez bere burua babestuz, auzo berriak zabalduz eta hirigintza-garapen berrietan hedatuz.

Europa Nostra Saria

Iruñeak *Europa Nostra* saria (Kultur Ondareari buruzko Europako Batasunaren nazioarteko saria) jaso zuen 2012. urtean, Kontserbazioaren kategorian, azken urteotan hiriko gotorlekuetan egindako lanarengatik. Epaimahaiak nabarmen utzi zituen "Iruñeko gotorlekuetan, hau da, Europan hobekien kontserbatu den hiri eta leku gotortuetako batean, egindako zaharberritze-lanak", bai eta "2006tik aitzina Udalak jarduketa-plangintza garrantzitsu bat sustatu izana ere, zeinen bitartez harresiak zaharberritu, jendearentzako ireki eta bertako inguruneari balioa handitu zaion, kultura- eta natura-izaerako aisialdiko gune gisara". Enrique Maya Iruñeko Alkatea Lisboara (Portugal) joan zen saria jasotzera ondokoen eskutik: José Manuel Barroso, Europako Batzordeko Lehendakaria, Androulla Vassiliou, Hezkuntza, Kultura, Hizkuntza-aniztasun eta Gazteriako europar komisarioa, eta Plácido Domingo tenore espainiarra, *Europa Nostra*ko lehendakaria. Iruñeko gotorlekuek publikoaren sari berezia ere eskuratu zuten. Sari hori 2012an ezarri zen lehenbiziko aldiz, eta herritarrek ematen dute bozketa baten bidez, on-line, *Europa Nostra*ren webgunean.

Iruñeko gotor-multzoa, XVI eta XVIII. mendeen artean eraikia, Europan hobekien kontserbatu den barruti bastoioidunetako bat da. Gainbehera XIX. mendean etorri zitzaion gotor-multzoari, eraginkor izateari utzi baitzion, artilleriaren aurrerapenen aurrean, eta



demografia-hazkunde izugarri handia izan zela medio, hiri-bilbea handitzera behartu zuena. Iruñeak gertakari arranditsu gisara ospatu zuen harresien parte bat eraitsi izana, 1915etik 1921era. Defentsa-eginkizuna galdu zutenez, ez zuten jada lehentasunik harresiak kontserbatu eta mantentzeko lanek. Hori dela-eta, gero eta gehiago joan ziren narriatzen harresietako horma-atalak, hala zikinkeria pilatzeagatik nola harlanduetan landaretza sustraitzeagatik.

Azken hamar urteotan, Udalak jarduketa-plan garrantzitsua sustatu du Iruñeko barruti gotortu osoa lehengoratu eta horren inguruen egoera hobetzeko. Iruñeko harresiak, garai batean defentsa-eginkizuna izateagatik hesi gisara erabiltzen zirenak, orain aisiarako tokia eta Iruñeko kultura- eta ingurumen-ondarea uztartzeko tresna bihurtu dira. Plana hiru ardatz nagusi hauen gainean diseinatu da: lehen ardatzak ondasun materiala kontserbatu eta lehengoratzeko du xede. Bigarrenak, inguruetan hobekuntza funtzionalak egitea, etxebizitza, ekipamendu, gune publiko eta mugikortasun-irigarritasun arloetan. Eta hirugarrenaren jomuga harresi-barrutia bera dinamizatzea da, bertako balio historikoak eta arkitektonikoak ezagutzera emate aldera.

Europa Nostra gobernuz kanpoko erakunde paneuroparra da, eta "kultur ondarearen ahots gisara" jarduten du. Europako berrogeita hamar herrialde baino gehiagotako berrehun eta berrogeita hamar gobernuz kanpoko erakundetik gora biltzen ditu, eta gutxienez bost milioi herritar ditu kide. Baditu, halaber, babesle gisara, ehun eta berrogeita hamar entitate publiko eta korporazio baino gehiago eta mila eta bostehun gizabanakotik gora. Erakundeko profesionalen eta boluntarioen sare zabala buru belarri aritzen da Europako kultur ondarea babesteko lanetan, gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldiek ondare hori goza dezaten. Iruñeko gotorlekuendako saria 31 herrialdeetako 226 proiekturen artean hautatua izan zen.

